

*Karmele Elola Aranburu*

*Zarautz,  
Gipuzkoa (1924)*

Aurkibidea

**Biografia**



Santa Marina kalean jaio zen eta bertan bizi da. Gazte-gazterik, 12 urte zituela, hasi zen udan umeak zaintzen, eta neskame ere izan zen zenbait etxetan.

# Zintak

## ZAR-028

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Data:** 2005-05-10
- **Iraupena:** 85 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

## Pasarteak

### 1. Umetako jolasak; sokasaltoan erdaraz

- **Erref:** ZAR-028/003
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:04:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Euskara » Euskararen egoera

#### Laburpena:

<p>Auzoan uztaiarekin jolasten ziren. Eta baita tximili-kuarteka, kaniketan, xakaponetan... Sokasaltoko abestiak erdaraz abesten zituzten.</p>

#### Transkripzioa

- Pixkat umetako ze oroitzapen, ze ze rekuerdo daukazu?
- Nik umetakua? ba, bueno, hemen barriyuan, jesus maria, jolasian beti. Uztaiakin. Batzuk egurrakin zekaen, baiño beste batzuk burnizkua, hola zea zana, ta hortxe kalian bueltaka beti. Gero tximikuarteka dala ta, azeituna, ta lapurrak eta zeak eta, poliziak eta... Bueno, danea ibiltzen zan! sokasaltuan ta saponetan ta kaniketan, ta... bueno! Arra bat eta. Bueno, gelditu gabe. Jolasian hola, ta sokasaltuan asko, ta tximilikuarteka ta. Dana hementxe, inguruan bueltaka, Rotetaneko buelta hontan. Diferentia da oain, dana aldatuta dago.
- Gogoratzen al dezu sokasaltoko kanturen bat o holako zeeze?
- Uf... Bueno, erderaz iten giñun danak...
- A bai, e?
- Baii. Geo euskeraz-ta ikasi ditue, baiño guk... "Al pasar la barca me dijo el barquero..." ta holako zea ta "Al cocherito lere..." ta holako gauzak! Asko, baiño nik hola behin´e ez det [buruikan] zeatu.
- Euskerazkoikan ez, e?
- "Al cocherito lere me dijo... lere". Dana, dana erderaz iten gendun!
- Ya.
- Euskeraz holako gauzikan nei ez zien erakutsi.

### 2. Miren Karmele izenaren inguruko gorabeherak

- **Erref:** ZAR-028/004
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:06:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Politika » Euskara eta politika

**Laburpena:**

<p>Beti Karmele izan da, baina eskolan Maria del Carmen deitzen hasi zitzaizkion. Bataioaren inguruko gorabeherak; ez zieten Miren Karmele izena jartzen utzi nahi. Herriko hainbat istorio. Aitona-amonak ez zituen ezagutu.</p>

**3. Ikastera joateko aukera utzita ume-zain joan zen**

- **Erref:** ZAR-028/005
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:06:54. **Bukatu:** 00:10:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Neskameak

**Laburpena:**

Eskola publikoan ibili zen lehenbizi eta gero miserikordian. 15 urte betetzeko zegoela interna Zumaiara ikastera joateko aukera eman zioten, baina berak nahiago zuen ume-zain lana egin. Hiru urte egin zituen lan honetan.

**4. Dontzeila-lanak eta janzkera**

- **Erref:** ZAR-028/007
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:12:40. **Bukatu:** 00:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Neskameak

**Laburpena:**

Orduan normala izaten zen umeak hazteko inudeak izatea. Bera dontzeila lanetan jarri zuten. Nola janzten zen. Dontzeila-lanak nolakoak izaten ziren.

**Transkripzioa**

(Besteen hurrei bularra emateaz dihardu)

- Ta, ordun, normala izaten zan orduan norbaitek ezin [...], ba...

- Bai, ahal bada, bai, bai, bai. [Iruiñak], ez, e... ["Añas"] eta nola esaten zian. "Aña seca" ta, hala esaten zian erderaz. Hemen nola udako jendia, aristokratiko asko ibili dan, hor haurrak hazteagatikan hasten zian, haurrak izan zituenak, haurrak. Beste batzuk amak izaten zian, batez, gu eon giñan bezela neskame, umiak ateatzan. Ta geo dontzeilla jarri zien. Eta geo atea zuen beste ume bat eta seituan jarri zien nei dontzeillatzat. Eta, graziya iten zien: "No te prepares demasio, e! Que viene el marqués de no se qué y no se quién ta no se cuánto", aristokrazikuakin asko ibiltzen zan. "Y también viene un cura que es un poco...". "Jolin! Ze esaten ai da hau?", esaten niyon nik. "No te prepares demasio, e!". Geo, kofia ta jarri ta kapakin ta erteten nitzan, eta esaten zien, este... Nik, ajatu in zitzaiten euzkiyakin, ta, ez nun jazten, ta bate gabe erteten nitzan. Ta balkoira erten

ta, "¡sube!", esaten zian. Ta iyotzen nitzan, ta zea, e, jartzeko, [...], "ba, berriya in diazu, ba. Ajatu-ajaturia ta hori lotsagarrikoa da, bate gabe hobia, hobeto naio. Eta, "askoz guapao zabezela danak esaten due". "[...], beak esango due, ni nahio det hori gabe ibili, baiño ibili beharra dakatelako ibiltzen naiz". Jaitako ya dotoreauak nezkan, ta asteako [...]. Geo aldatu zixkien, bai.

- Ordun, ume zain hiru urte in zenun etxe berean?

- Bai, bueno, dontzeillatzen jarri zien geo, e. Eta umiak in ertetzen nitzan. "Baiño hortikan erteera zeik ez dun, e!", txikiyakin hartu, ta Gran Hotelea. Beti Gran Hotelian eon behar izaten nun [...], eta han. Geo eguardiyan etortzen nitzan, eta hor katxarrera esaten zizakoen bat eoten zan, eta karameluak eta 're saltzen zitun, e, Azara kalia zekan itxe bat. Eta harei lagatzen giñun, itxeatzen ez zan haur hori. Eta hantxe [...] jeisten giñun, eta nik bazkaldu o zeatu ta in bitartian, eta geo berriz jetsi, ta horrei lagatzen giñun, ta nik ya jun behar banun, pixkatian jartzen zuen, ta geo dontzeilla zeonak eramaten zun. Ta geo ni dontzeillatzen gelditu nitzan, ta. Geo bi urte hala in nitun.

## 5. Dontzeila-lanak

- **Erref:** ZAR-028/008
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:14:50. **Bukatu:** 00:16:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Lanbideak » Neskameak

### Laburpena:

Dontzeila-lanaren baldintzak. Hamabostean behin irteten ziren. Berak dantzara joaten uztea eskatu zion nagusiari. Langile asko zeuden etxean, medikuak kontsulta etxean pasatzen zuen eta.

### Transkripzioa

- Ta gaztia, ta laun bat nekan eskolatikan. Eta hamarretan zea izaten zan plazan, dantzaia izan naiz, hori bai. Plazan musika izaten zan, ta lehenbiziko piezak. Hamarretan etortzen zitzaixkiten ba, afaita, baiño hamar ta laurdenak izaten zian. Lehenbiziko pieza bukatuta etortzen zian. Ta ni ze iten? Tinbria jotzen zian, ta erten, ta dantza erteten nitzan. Pieza hoiek in ta itxea etortzen nitzan, ta. Eta hor eoten zan beti, hor eoten zian, ta etxeoandria beti hor eoten zan, ta piezak indakuan bukatzen zan. Eta ikusi iten zilako, ta aurrexio juten zan. Eta, jun eta, "¿qué es esto? Cenar y aquí, nadie pa sacarnos la cena". "A, bueno, a mí el aita me dijo que, que estuviera un año y ya he hecho el año, y ya voy por el segundo año, y así que, entoces me voy pa casa", esan niyon. Eta esan zian, "Oí! No me dejes con dos años al niño, otro año aunque sea, por favor, otro año, otro año, otro año". "Ah, pues me tendrá que dejar ir a bailar esas piezas", esan niyon. Ba, hamabostian bakarrikan erteten giñan, e! Ta bea igual lau t 'erditan erten ta zortzitan itxea, bai, libre eguna. Hiru genden, e. Ta geo gaiñea interina, ta.

- Jo!

- Bai, bai. Hiru haur ta...

- Langille asko etxe batian, ez?

- Bai, bai, bai. Baiño, klaro, meikua zan, e! Eta lan asko zeon etxeo garbitasunian 'e bai, ta geo, Oriyotik etortzen zan bat, labandaitza itea,

garbitasuna itea. Bai.

- Kotsulta etxean pasatzen zun?

- Bai, bai, bai. Kotsulta itxian pasatzen zun. Ordun ez zan hola zeaikan.

Garai haitan kotsulta itxian zan. Horreatikan ni jun nitzan horrea. Ahizpak bihatzian miña in zulako [...]. Bestela Zumaian eongo nitzan. Ez zait damutu, e! Karo, eskola gehio jakingo nun, baiño...

## 6. 12 urterekin ume-zain udaran

- **Erref:** ZAR-028/010
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:17:30. **Bukatu:** 00:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

### Laburpena:

Kanpoko batzuen etxean [Jean Pierre] egon zen uda baten ume-zain 12 urterekin eta hiru ume zaintzen zituen.

## 7. 10 urterekin Bilbora neskame

- **Erref:** ZAR-028/012
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:19:50. **Bukatu:** 00:23:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

### Laburpena:

14 urterekin Bilbora joan zen neskame 15 egunerako. Etxekoandrea oso gogorra zen. Nolako lanak egin eragiten zizkien. Bilbon gertatutako gorabeherak.

## 8. Bilbotik [Arakaldora] osaba bisitatzera

- **Erref:** ZAR-028/013
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:23:21. **Bukatu:** 00:24:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Neskameak

### Laburpena:

Eibarko osaba-ta [Arakaldora] joan ziren, eta bera bisitan joan zitzairen Bilbotik etxerakoan. Nolako ibilerak pasatu zituen.

## 9. Txikitatik hondartzan

- **Erref:** ZAR-028/014
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:24:21. **Bukatu:** 00:25:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

**Laburpena:**

<p>Txiki-txikitatik joan izan da hondartzara. Igerian aurreraino joatea gustatzen zitzaion.</p>

**Transkripzioa**

-Hondartzan ibiltzen al ziñaten?

-Hondartzan bai asko, hondartzan bai igeriyan. Ba harrapatzen nun guztiyan ta eote nitzan guztiyan ta txiki-txikitatikan beti, bai ta hemen ezin zanian molla ta ez zuen lagatzen molla juten, baiño han ikasteatikan ta.

-Nun ikasi zenun igeriyan?

-Hementxe, herriyan. Eta geo ya iten nun ta baiño...

-Hondartzan ala mollan?

-Nik ustet gehio hondartzan. Ta geo gehiegi atrebitzen nitzan gure gizona larritu iten zan ta "ez zaite aurrea jun e! hola ibili zaite e!". Eta ni aurrea juteko ohitura hantxe ondona ibiltze nitzan. Eta bat han dator giza-seme bat dana sustatuta, korrientian nebillen, eziñian nebillen, antzeman in zian ta: "Lasai e, ertengo naiz-ta". "Ez launduko dizut", ta "Ez, ez segi lasai". Baiño onduan jun zan, "Ertengo naiz". Senarrak esaten zian beti "zuk solterotatikan". Berak erakutsi zian ta hemen itsasua goi-goian zeonian mollaraiño juten giñan eta bakarrikan geo bildurtu ite zan, eta geo ya hasi nitzan hola ibiltzen, batea ta bestea bai. Geo olatutan izugarri gustatzen zitzaiten. Oain, berriz, olatuikan...

**10. Eskola kontuak; irakasleak**

- **Erref:** ZAR-028/016
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:26:14. **Bukatu:** 00:29:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

**Laburpena:**

Eskola publikoan ibili zen "señorita" Felisarekin. Bi maila zeuden eta bera bigarrenean hasi zen, 8 urte ingururekin. Ze ikasten zuten. Bi talde egiten ziren adinaren arabera. Gero "señorita" Nikolasarekin ibili zen.

**11. Gerra-garaiko jatekoa**

- **Erref:** ZAR-028/021
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:34:40. **Bukatu:** 00:35:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

**Laburpena:**

<p>Gerra-garaiko ogiari "dinamita" deitzen zioten. Ez zuten hura jaten.</p>

Babarrunak eta irina lortzen zituzten eta ardia ere hazi zuten etxean. Baratzea zuten etxean. Ogia ere etxean egiten zuten.</p>

## 12. Kuliskako dantzaldiak eta zinea

- **Erref:** ZAR-028/022
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:35:48. **Bukatu:** 00:37:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
- Aisia » Kultura » Dantza

### Laburpena:

Gaztetako zaletsauna dantza egitea zen. Kuliska-n dantzaldiak jartzen zituzten, baina gaizki ikusia zegoen bertara joatea. Zinera ere ezin zen joan 3koa bazen. 17 urterekin senarrari gaztetxoa zela esan zion eta urtebete beranduago berriz itzuli zitzaion.

### Transkripzioa

- Bien, ordun, e, geo, ya, pixkat eskola ta geo, ya, pixkat gazte... gazte-aroan sartzen gea, pixkat gazte sasoiari.

- Gazte-sasoiari? Ba, esaten dizut, ba. Hamabostetik hemezortzi urte arte, zean. Geo, geo, nahiko kontu 're bai [esaten dixkie], esateko kontuak ez dia, ordia!

- Ze dibertsiyo, ze dibertsio zan gazte-garaian, ze dibertsio euki zenuten?

- Guk? Plaza musikan dantza itia eta geo, hor, Kuliskan o, jarri zuen dantza. Baiño hara jutia zan, osea, pekatu mortala. Ta baten batzuk juten zian. Ta ni ez dakit behin jun nitzan o horrela. Eta zinea 're ezin zan jun, e! [...], ez zeon juteik, eta sekula juten ez. Senargaiakin 'e ez. Hemezortzi urtekin hasi nitzan, hamazazpikin nahi zun, ta esan zien, gaztetxua nitzala, ta nahi bazun itxoteko urte betian, ta urte betea etortzeko nahi baldin bazun, ta bestela beste batekin hasteko esan niyon. Urte betea, iten zun urte bete egunian etorri, ta beakin ezkondu nitzan geo. Urte bete eon zan. Esan niyon, ba, hamazazpi urte, ta ez, ez, gaztetxo naiz uaindikan, ta ezta pentsatu 're.

- Gizajua!

- Bai!

## 13. Josten ikasten; kortea

- **Erref:** ZAR-028/023
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:37:10. **Bukatu:** 00:38:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

### Laburpena:

Josten ikasten ibili zen. Ze lan egiten zituzten. Aristokraziako jendearentzat ere egiten zituzten arropak. Bi urte egin ostean Purita Narbaizanera joan zen kortea ikastera.

## 14. Dantzan plazan ikasten zuten

- **Erref:** ZAR-028/025
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:41:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

### Laburpena:

Dantzan plazan ikasi zuen. Bere senarraren aita dantza-txapelketetan epailea zen.

### Transkripzioa

- Lehen esan dezu dantzaria ta...
- Dantzaia ni ez naiz ibili, e!, dantzan. Dantzari bezela ez, baiño dantza asko gustatzen zitzaitela bai, bueno!
- Ta nola ikasi zenun?
- E?
- Nola ikasi dantzan?
- Dantzan? Hoixe, plazan dabiltzazela.
- Sueltuan, edo?
- Sueltuan 'e bai. Sueltuan hor ikasitakua dakiu. Sueltuan asko in det. Nere gizonan aita gaiña jurauan ta eoten zana zan dantzaiakin ta. Beakin 'e dantza iten nun, zea, San Pelaiotan dala ta festetan dala. Ta, "benga, Karmele, in zan!", ta, zea, gizonan aitakin.
- Ta, pixkat praktika, nola, nola, nola iten zian. Aste barruan praktika in ta gero...
- Bai, zea! Batere ez! Beti plazan ikasi deu guk, txiki-txikitatikan plazan hasi ta plazan.
- Etxian, ispilluan aurrean ta...
- Ezta, behiñ ere, ezta okurritu 're. Ordun holako gauza danak pekatu zian ta.
- A, bai, e?
- Bai. Dantzan itia? Nei ez zien hartu, e, zean, e, Hijas de Mariasetan. Osea ke, kongregaziyuan ez zien sartu nahi. Baiño, hori, ixtoriyak...

## 15. Guraso eta anaien propinak

- **Erref:** ZAR-028/027
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:42:58. **Bukatu:** 00:45:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

### Laburpena:

<p>Orduan bi komunio egiten ziren, bata zazpi urterekin eta bestea hamabirekin. Familiakoen arteko harremana. Anaiak, amak eta aitak ze propina ematen zioten eta zertan gastatzen zuen.</p>

## 16. Pagoetako gurutzearen inaugurazioa

- **Erref:** ZAR-028/029
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:49:00. **Bukatu:** 00:50:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

### Laburpena:

Pagoetako gurutzearen inaugurazioan egon zen 10 urte zituela. Eguraldi txarra egin arren, jende asko aritu zen dantzan txistu eta danbolinarekin.

### Transkripzioa

- Pagoetako inauguraziyuan esan dezu. Nola izan zan...
- E?
- Pagoetako gurutzean inauguraziyuan egon ziñela.
- Bai.
- Nola izan zan egun hori? Nola...
- Oi! Ederra! Dantzan ta esaten ez dizut, ba, izugarrizko korro eder haundiyakin, ta gu erdiyan txikiyokuak dantzan. Ta euriya han jo ta ke in zun. Eta, euri hori dana, busti-busti-busti in nitzan, eta ordun hamar urte t 'erdi nezkan. Bueno, hamaika iteko neon, uztaillan. Eta, jaun hartzia hamaikakin in behar izaten zan. Baiño, este, esan zun, karo, e, uztailla, ekaiñan azken arte bakarrikan izaten zan. [...] urte guztiya hartzen da, ta ekaiña [...] arte, sei hillabete arte izaten zan. Ta nik uztaillan bostian iten nun. Ta esan zian hurrungo urtian in beharko nula. Eta esan niyon, Jesus Maria! Neska hazitzen, osea ke, gazte-haziya nola esaten da? Gazte-haziya izan naiz. Nei igual hamabost urtekin esaten zian hemezortzi urte nezkaela. Eta geo, hemezortzi ta hogeit iten nitunian, hamazazpi igual esaten zian nekala. Bai, egiya, e?
- Jende asko jun al zan hemendik Pagoeta? Zarauztik jende asko?
- Nik uste baietz.
- Bai?
- Ni behintzat, ni neska-koskorra nitzan hamaika urtekua ta neetzako asko zan jendia han.
- Oiñez jungo ziñaten, noski?
- E?
- Oiñez, noski.
- Bai, bai, bai. Oiñez, oiñez. Geo beste behin o bitan o bakarrik jun naiz, e. Karo, hamabost urteako horrea sartu nitzan, ta...
- Ze musika zeon ba, soiñua ala txistua, edo?
- Bai, txistua ta danboliña uste det zala han. Bai, ta danak dantzan ta.

## 17. Umetan pleurarekin gaixoturik

- **Erref:** ZAR-028/030
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:50:22. **Bukatu:** 00:52:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

### Laburpena:

Neskatoa zenean anaiaren bizikletarekin ibiltzen zen, baita euripean ere. Azkenean, gaixotu egin zen pleurarekin eta hamabost egunean ohean egon zen. Linaza eta mostazarekin egindako kataplasma jartzen zioten sendatzeko.

### Transkripzioa

- Esaten dizuten dana busti. Ta geo anaiak zakan bizikleta, karreristak eukitzen zun bezelako, zea behera duena. Ta hemen hola dana libre zeon, hura hartuta beti bizikletan ni, beti bizikletan ibili in det. Kimua jotzen ai nitzan eta, e, hura in ta geo 're dana bustita etorri, eta eskolatik etorrita beti, benga ta benga ta. Geo, eskolatik etorri ta beti bazkaitako beti pronto jartzen omen nitzan. Eta etorri ta, danba!, ta ohian etzaten omen nitzan. Eta "etorri hai jatea!", ta, "ez dakat, ba, gogo haundiikan", ta. "Etorri hai jatea!". Ta esan zien, "bueno, Don Leandroi deituko zionau", ta. "Ez, nik Anetxun aita nahi det", Zinkunegi, "Anetxun aita nahi det". Eskolan Anetxu, ta, meikua zun aita, ta, "Anetxun aita nahi det nik". Eta bueno, "ba, ekarriko deu". Ta bueno, pleura, pleura o nekala o ez dakit ze. Hamabost egunian deskantsuan eukitzeko. Ta hamabost egunian euki eta pixatzea eramateko, gizendu in behar nula. Eta kataplasma jartzen zien. Hor ez zan ez injekziyoik eta ez ezerre. Jaten ondo emateko ta fruta 're emateko.

- Zer zan hori, kataplasma?

- Linaza ta mostaza. Osea ke, mostazakin kataplasma hola paiñuan bitu, eta hola zea bota geo linaza pixkat. Hementxe, ezkerraldia nun, eta geo jartzen zin kataplasma hori, ta "oso ondo dijua, e. Ya sendatu da, baiño beste hamabost egun... Txikiya ta da, eskola jun ta jolasian ta izarditu ta hoztu ingo da, ta berrizkatu ingo zako ta, zean, ta". Ordun komedorea jun ta, "ze, esan diazu garbi, e, noabaitea moitu behar baldin...", "ez, ez, lasai, e, lasai". Ta geo amak eraman zian, zein zan meiku hura? Geo 're jun nutzan ni, [...] izan naiz ta beti jun iten nitzan, urtian behin.

## 18. Oheko arroparekin Zalbideko garbitokira

- **Erref:** ZAR-028/032
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:54:40. **Bukatu:** 00:56:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

### Laburpena:

<p>Salbideko garbitokira joan izan da. Batzuek leku finkoa izaten zuten. Etxean xaboitzen zuten arropa eta garbitokira aklaratzera joaten ziren. Zenbat oheko arropa egoten zen garbitzeko.</p>

### Transkripzioa

- Zalbideko garbitokia ezautu al zenun?

- Bai, jun 'e bai izandu naiz.

- Ta nola gogoratzen dezu?

- Ba, Jesus, Maria! Han bazeben batzuek beti toki bat behar zuenak. Haiek errespetatu in behar zian, porke hango garbiya. Bestiak jaboia kendutzen ta, jaboia hura hartzeko ez zebela, ta. [...] tokiyan, bai, askotan juten giñan. Baiño itxian jabontzen gendun guk dana, e. Gendakaun mahaian jartzen gendun sinkazko zea bat, hola. Eta han jartzen zan erropa dana, eta, han dana jabontzen zun amak. Amak dana jabontzen zun, ta nere ahizpa

zaharren honek hartzen zun zean, goian horrela. Nik txiki bat hartzen nun, baiño.

- [...]

- Bai. Aklaratzeta juten giñan gu. Han, bertan juten zian jabontzea hamarretik betzi, dana bertan iten zituen. Eta, klaro, ba al dakizu ze pasatzen zan? Langilliak mekanikuak eta zianenen erropak, haiek zikiñ asko, ta jendiak haien onduan nahi ez eon. Guk dana itxian iten gendun, e, akklaratzeta juten giñan. Geo ya labadora zeta hoietakua zeatu zanian, akklaratzeko eo zeatu giñan, baiño dana itxian. Eske, hiru pixu prepaatu behar izaten gendun. Betzi ohi, hamar matrimoniyuakin jotzen gendun, eta gaiñea, siheska jartzen gendun. Koltxoi hoiek danak dinbili-danbala, dinbili-danbala, ta danak arrotu ta in behar izaten giñun danak. Eta manta guztiyak eta sobrekama guztiyak eta, han, beste hoientzako erropa dana jartzen zitzakoen, [...] eta danak jartzen zitzaixkioen. Oaiñ ez, oain erropa beak ekartzen duela askok. Batzuek erropakin 'e bai, baiño ordun dana jartzen zan.

- Ze giro eoten zan han? Zera, Zalbidetako garbitoki...

- Han, ondo! Nik ondo ibiltzen nun. Baten batzuk bazian pixkat raruak zianak, baiño ez, ez, ez, ondo. Ni, ni behintzat juten nitzanian oso ondo. Ez dakit garaia hartzen gendun, o eguna hartzen gendun, o zer, ba, askok izango zun ohitura igual astelehenian bertan dana iteko, ta.

## 19. Jatordu orekatuak egiten zituzten; baratzea; azoka

- **Erref:** ZAR-028/034
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:57:35. **Bukatu:** 01:00:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

### Laburpena:

<p>Berdura asko jaten zuten etxean eta babarruna ere bai. Makarroiak, garbantzuak eta babarrun zuriak ere jaten zituzten. Baratzeko gaiak plazan saltzen zituen amak eta baita fruta ere. Sagarrak lapurtzen zizkieten herritar askok.</p>

## 20. Bederatziurrena bainuetan; txaparroak

- **Erref:** ZAR-028/036
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:03:45. **Bukatu:** 01:05:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

### Laburpena:

Bederatziurrena: bederatzi bainu hartu behar izaten ziren baineruarekin. Irailekoak izaten zirela onenak esaten zuten. Txaparro itxiak erabili behar izaten zituzten, bestela probokatzea zela esaten zieten.

## 21. Dantza; neska-mutilen arteko harremana

- **Erref:** ZAR-028/037
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:05:25. **Bukatu:** 01:07:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Kultura » Dantza

### Laburpena:

Dantzara neska eta mutilak joaten ziren. Mutilak neskei dantza-eskatzera joaten zitzaizkien. Nola ligatzen zuten. Mutil asko izan ditu atzetik.

## 22. Sagardotegia zuten Sta Marinan

- **Erref:** ZAR-028/041
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:10:16. **Bukatu:** 01:11:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

### Laburpena:

Sta Marinan sagardotegi asko zegoen. Beraiek ere bazuten sagardotegia eta enboteilatu ere egiten zuten sagardoa. Neskak ez ziren asko joaten sagardotegira. Mutilek tokan jokatzeko zuten.

## 23. Emakumeen apaintzea: makilaia, orrazkera

- **Erref:** ZAR-028/042
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:11:34. **Bukatu:** 01:13:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

### Laburpena:

Emakumeek normalean ez zuten erretzen. Bera senarrarengatik hasi zen. Bazeuden makilatzea gustatzen zitzaien emakumeek ere, baina bera ez zen makilatzen. Trentza luzeekin ibiltzen zen, baina pelukerira gaztetan ez ziren joaten.

## 24. Etxea alkilatzekeo egiten zituzten prestaketak

- **Erref:** ZAR-028/044
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:15:02. **Bukatu:** 01:16:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

**Laburpena:**

7-10 mila pezeta inguru ordaintzen zieten pisuaren alkilerra. Lan handia egin behar izaten zen etxea prestatzen. Etxea garbi-garbi jartzen zuten: zorua garbitu, argizaria eman.. Koltxoi asko behar izaten zen eta Salbidera joaten ziren astintzera.

---

**Eloa Aranburu, Karmele** | ahotsak.eus Orr.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-04

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com